



**OREXAKO**  
**UDALA**

## HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ARAUDIA

---

### Zioen azalpena

---

Aspalditik dugu Orexako herritarrok udal erabakietan zuzenean parte-hartzeko ohitura. Ehun biztanle azpitik genituenean “Concejo abierto” delakoaren pean funtzionatzen genuen eta herri bilerak bazuen legalki erabakitze eskubide bat alkatearekin batera.

Gaur egun, Orexako herriak ehun biztanletik gorako herria denez bost zinegotziz osatutako udal taldea du, hau izanik legez dagoen erabaki gune bakarra. Herritarrek lehenago zuten erabaki ahalmen horren hutsunea bete eta baliabide desberdinen bitartez, demokrazia parte hartzailea garatzen ari da azken urte hauetan. Une honetan udal araua sortzeko beharra ikusten dugu honako hau lortzeko: Orexako herritarren parte hartzea antolatu eta egituratzea, Orexako auzokide guztien eskuetan parte hartzearen gainean dituen eskubideak eta betekizunak jar daitezen ahalbidetzea eta herritarren ikuspegia udal kudeaketan sartzea errazten duen parte hartzearen egitura proposatzea.

Arauek ez dute berez parte hartzea eragiten baina uste sendoa dugu arautegiak parte hartze hori bideratzen eta errazten lagun dezakeela. Arautegia egiteko orduan, kolektibo bakoitzaren arazoak eta beharrianak kontuan hartzen saiatu gara, arau honen artikuluen bidez parte hartzearen funtzionamendu zuzeneko mugak eta eragozpenak gainditzen saiatzeko. Arautegi honetatik kanpo, Orexako herritar eta gizarte eragileen esku dago parte hartzea benetakoa eta eraginkorra izatea.



**OREXAKO**  
**UDALA**

## **Xedapen Orokorrak**

### **1. Artikulua. Xedea eta ezarpen eremua.**

Arautegi honen xedea, Udalbatzaren borondatearen adierazpen den aldetik, herritarrek Orexan parte har dezatela sustatzea eta hori garatzea da, bertako demokraziaren gardentasuna eta kalitatea bermatuz.

Arautegi honen ezarpen eremua Orexako udalerria da, herritarrak, auzokideak, erakundeak, elkarteak eta taldeak, gizarte, politika eta ekonomia eragileak barne.

### **2. Artikulua. Arautegiaren xedeak.**

Arautegi hau aplikatuz, ondorengo helburuak lortu nahi dira:

- Herritarren partaidetza ahalbidetuko duten bide eta organismo desberdinak zein diren zehaztu eta arautzea da.
- Herritarrek, banaka nahiz taldeka, herritarren interes orokorrak kudeatzen eta babesten parte har dezatela ahalbidetzea, aukera berdinekin emakumeen parte hartzea ahalbidetzen duten neurri zehatzak ezarriz.
- Kudeaketan gardentasuna sustatzea, informazio argia eta benetakoan oinarrituz, kontsulta-sistema eraginkorrak bultzatuz, eta herritarrekin elkartzeko eta eztabaidatzeko guneak sortuz, horiek udal bizitzaren kudeaketan parte har dezatela ahalbidetzeko.
- Pedagogia politikoa abiapuntutzat harturik, Udalaren egituraren eta, oro har baita herritarren artean ere, parte hartzeko kultura sustatzea.



## **OREAKO** **UDALA**

---

- Elkartasunaren, gainerakoekiko errespetuaren, erantzukizun partekatuaren eta gizarte kohesioaren gizarte balioak zabaltzea.
- Administrazio prozedurak, udal izapideak, herritarrei eskainitako arreta, eta Udalaren antolamendua bera hobetzea, aurreko hori egin ahal izateko.

---

### **Orexako herritarrak**

#### **3.- artikulua. Oreako herritarrak**

- 1.- Biztanleen udal erroldan inskribatuta dagoen pertsona oro da Oreako herritarra.
- 2.- Horrez gain, araudi honen ondorioetarako, bertan araututako zenbait eskubide eta betebeharrak 16 urte baino gehiago dutenei zabalduko zaizkie.

---

### **Parte-hartzeari buruzko eskubideak**

#### **4.- Parte hartzeko eskubidea**

- 1.- Pertsona orok du tokiko gai publikoen kudeaketan parte hartzeko eskubidea, dela zuzenean edo dela herritarren elkarte baten bitartez.
- 2.- Araudi honen arabera, parte hartzeko eskubideak, udal honen gai edo jardueren inguruko interes legitimoa duen pertsona orok balia dezake.



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

3.- Herri kontsultarako eskubidea soilik Orexako hautesle erroldan inskribatuta dauden eta botoa emateko eskubidea ukatua ez duten pertsonak erabili ahal izango dute. Kontrako arrazoiketak ez bada, eta aurretik plenoak gehiengo osoz hala erabaki ez badu, 16 urtetik gorako herritarrek ere edukiko dute eskubide hau.

**5.- artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea**

1.- Pertsona orok, dela pertsona fisikoa dela juridikoa, indibidualki edo kolektiboki, eskubidea du udal jarduera eta zerbitzuen informazioa zabal eta objektiboa jasotzeko, indarrean dagoen legerian araututakoaren arabera udal artxibo publikoetarako sarbidea izateko eta Udalak ezarritako informazio orokorreko bitarteko guztiak erabiltzeko.

2.- Interes publikoko gaiak direnean edo Udalak antolaturiko bilerak direnean, etxe guztietara buzoneatuko da deialdia. Honetaz gain, deialdia herriko ostatuan ere ikusgai jarriko da, gutxienez astebete lehenago.

3.- Herritarrei ahalik eta informazioa gehien emateko, Udalak hartutako garrantzizko erabakien laburpena Udalaren webgunean ere argitaratuko du.

4.- Osoko bilkura batetik besterako tartean, hiru hilean behin, bertan trataturiko gaiak azalduko dituen aldizkari bat buzoneatuko da etxe guztietara. . Hau ere Udaleko web orrian argitaratuko da.

5.- Orexako Udalak helbide elektronikoen zerrenda bat sortuko du, hala eskatzen duten herritarrei atal honetan adierazitako informazioa igortzeko. Herritarrek posta elektronikoen zerrenda horretan egoteko eskaera egiteko eskubidea izango dute, Osoko Bilkuraren aktak, Udalaren bandoak, udal plangintzako behin betiko onartutako erabakiak eta herritarren parte hartzeko prozesuei buruzko dokumentazioa



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

jasotzeko. Posta elektronikoen zerrenda horren erabilera datu pertsonalen babeserako legea betez egingo da eta herritarrek eskatutako informazioa helarazteko soilik erabiliko da.

6.- Beste edozein informazio idatziz eskatu beharko da. Eskaeran, eskatzailearen datuak (izena, abizenak, nortasun agiri edo pasaportearen zenbakia, jakinarazpenetarako helbidea eta modua), bere izenean edo norbaiten ordezkartzan egiten duen eta zer nolako informazioa kontsultatu nahi duen adieraziko ditu. Eskaera kolektiboa baldin bada, eskatzailearen datuok emateaz gain, kolektiboa osatzen duten eskatzaile guztiek eskaera sinatu beharko dute eta sinadura horren ondoan horietako bakoitzaren izen-abizenak adierazi beharko dira. Informazio eskaera izapidetzean ari den espediente bati buruzkoa bada, informazio hori eskuratu ahal izateko, eskatzaileak interesduna izan behar du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, herritar ororen sarbiderako eta agerraldirako eskubidea bermatuko da hirigintzako edo ingurumeneko gaietarako buruzko espedienteetan eta, oro har, ekintza publikoko nagusi den gai guztietan.

Dokumentu idatzi, grafiko edo euskarri informatikoetan bildutako informazioa bada, kopia eskatu ahal izango da. Halaber, pertsona fisiko edo juridiko orok du udal organo erabakitzaileek hartutako erabaki guztien ziurtagiriak lortzeko eskubidea. Eskaturiko dokumentazioa, 30 eguneko epean helaraziko zaio eskatzaileari. Hala ere, epe hori atzeratzeko arrazoiak baleude, entzuteko epea 15 egun gehiagoz luzatu ahal izango da.

7.- Informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeak ez du eragotziko izaera pertsonaleko datuei buruzko legeria betetzea eta pertsonen intimitatea errespetatzea. Halaber, ezin izango da erabili Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 30. artikuluan 5. ataldea aipatutako espedienteetarako buruzko informazioa eskatzeko.

8.- Herritarrek eskubidea dute Orexako Udalaren Osoko Bilkuretara joateko. Bilera horien gai zerrenda, udalaren webgunean eta herriko ostatuan ikusgai egongo da. Honetaz gain etxez etxe



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

buzoneatuko da deialdia eta gai ordena eta posta elektronikoz ere igorriko zaie hala eskatu duten pertsona edo Udal erregistroan inskribatutako taldeei.

**6.- artikulua. Entzuna izateko eskubidea**

1.- Herritarrek eskubidea dute alkateak edo Alkatetzaren eskuordetzea duen zinegotziak har ditzan, hitzordua eskatzeko prestatutako prozeduran ezarritako ordutegian, eskaera egiten denetik 30 eguneko gehieneko epean; bidezko arrazoiren bat bada tarteko, 15 egunez luzatu ahal izango da epea. Lehentasuna izango dute interes legitimo eta zuzena dute prozeduren edo udal jardueren izapidetze prozesurako entzunaldia eskatzen dutenek.

2.- Halaber, herritar eta herritarren elkarte orok du prozeduren izapidetzean edo interes legitimoren bat duen udal jardueren burutzean entzuna izateko eskubidea. Eskubide hori administrazio espedienteak 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuta edo Udalaren ekimenez egindako deialdiaren bidez erabili ahal izango da, edo herritarren intereseko gaia jorratzeko egindako herri proposamenaren bidez.

3.- Udalerriko biztanleek edonori zabaldutako bilera publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, udal eskumeneko gaien inguruko informazioa jaso eta iritzia emateko. Alkateak deituko ditu bilera horiek, bere ekimenez edo Taldeen Udal erregistroan inskribatutako elkarte edo taldeek. Halaber, udalerriko bizilagunen %5 baino gehiagoren sinadurekin egindako eskaeren bidez ere egingo da deialdia.

**7.- artikulua. Eskariak egiteko eskubidea**

1.- Pertsona orok, indibidualki edo kolektiboki, eta Elkarte eta Taldeen Udal erregistroan inskribatutako elkarte orok du eskubidea udal gobernuari bere eskumenekoak diren gaiei buruzko



## **OREXAKO** **UDALA**

---

eskaera egin edo udalaren jardueri buruzko azalpenak eskatzeko. Eskubide hori zuzenbidean baliozkoa den eta eskatzailearen nortasuna eta eskaeraren xedea era frogagarrian jasota uzten dituen edozein bitartekoren bidez erabili daiteke.

2.- Eskaera, horien artean, kexak, iradokizunak edo proposamenak egon daitezke eta eskaerak Udal Erregistroan aurkeztuko dira. Udalak ezarritako bitarteko elektronikoko edo telematikokoak (webgunea, e-posta...) erabili ahal izango dira. Eskaera guztiek eskatzailearen nortasuna egiaztatze bidea eman behar dute.

3.- Udalak hiru hilabeteko gehieneko epean erantzun beharko dio eskatzaileari, adieraziz zer neurri hartu diren edo zer jarduera burutzea aurreikusten den. Eskaeran akatsen bat bada, jakinarazi eta 10 eguneko epea emango da zuzentzeko, bestela prozeduran atzera egin dela ulertuko da.

### **8.- artikulua. Herri ekimenerako eskubidea**

1.- Edonork, norbanako, taldekide edo elkarte izan, udalari udal interes publikoko jarduera bat egiteko eskatzeko eskubidea aitortzen da. Eskatzaileek bitarteko ekonomikoak, ondasunak, eskubideak edo lana jartzeko konpromisoa hartuko dute. Horiek izapidetzeko, gutxienez udalerriko 16 urtetik gorako bizilagunen %5en babesa beharko du.

2.- Udalak eredu bat prestatuko du, eta bertan argi adierazi beharko dira proposamena eta hori justifikatzeko arrazoiak.

3.- Eskaera egiteko, idatzi bat aurkeztuko da argi adierazita zer jarduera eskatzen den eta eskatzaileek, hori gauzatzeko laguntzeko zer bitarteko ekonomiko edo pertsonal jarriko dituzten. Idatzian, halaber, sinatzaile guztien izena eta abizena, helbidea, nortasun agiria eta sinadura jasoko dira.



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

4.- Herri ekimen bat onartzeko, interes publikokoa dela eta herritarren ekarpenaren ezaugarriak egiaztatu beharko dira, eta Udalaren eta eskatzaileen edo haien ordezkarien artean hitzarmen bat sinatu beharko da. Hitzarmen horretan zehaztuko dira alderdi bakoitzaren konpromiso, betebeharrak eta erantzukizunak, baita jardueraren eduki zehatza ere.

5.- Arau honetan eta aplikatu beharreko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren eta bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertuta, ekimen horiek Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko dira.

**9.- artikulua. Osoko Bilkuretan proposamenak aurkeztea**

1.- Aurreko atalean arautzen ez diren kasuetan, herritarrei eta Udal Erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeei aitortzen zaie Osoko Bilkuraren gai zerrendarako gaiak proposatzeko eskubidea.

2.- Proposamena Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko eskaera Udal Erregistroan egin beharko da gutxienez Osoko Bilkura baino 15 egun lehenago, betiere gaia ez bada azken sei hilabeteetan baldintza beretan jorratu.

**10.- artikulua. Udalaren Osoko Bilkuretan parte hartzea**

1.- Udalak ohiko Osoko Bilkurak gutxienez hiru hilean behin egin beharko ditu. Kasu guztietan irekiak izan beharko dute eta deialdia eta gai ordena etxe guztietara buzoneatuko da.. Premiazko arrazoiengatik itxia den Osoko Bilkura berezi bat egin behar bada, hurrengo ohiko deialdian azaldu beharko da erabaki dena eta itxia egiteko arrazoiak.

2.- Herritarren elkarte, talde edo norbanako orok du Osoko Bilkuretan parte hartzeko eskubidea.





**OREXAKO**  
**UDALA**

---

- 3.- Alkatea edo bilkuraren buru denari dagokio hitza hartzeko txanda irekia moderatzea.
- 4.- Baten batek punturen bat proposatzen badu aurkezpena egiteko 10 minutuko epea izango du. Ondoren galderak eta eztabaida eta azkenik hala badagokio bozketa.
- 5.- Udaleko Osoko Bilkura guztietan, gai zerrendaren amaieran, galdera-eskaerentzako txanda irekiko da, bertaratutako norbanakoek zein elkarteetako ordezkariak egoki deritzaten adierazpena edo galderak egin ditzaten. Alkate edo bilkura buruari dagokio hitz egiteko txanda hori neurtzea.
- 6.- Erantzuna edo argipena momentuan eman ezin bada ekarpena bileraren aktan jasoko da eta hurrengoan erantzuteko konpromisoa hartuko da.
- 7.- Udaleko ohiko Osoko Bilkurak herritarren parte hartzea erraztuko duen egun eta ordutegian egingo dira; lan egunetan eta arratsaldean. Ostiral iluntzeak lehenetsiko dira.

**11.- artikulua. Udalaren Osoko Bilkuretan bozketak**

- 1.- Osoko Bilkuretan erabakiak aho batez hartzeko borondate osoa egongo da.
- 2.- Erabateko adostasuna ezinezkoa bada eta hautetsiek hala erabakita, bertaratutakoei bozkatzeko eskubidea emango zaie. Ezingo da botorik delegatu eta bertaratuko bakoitzak bozka bat izango du, talde edo norbanako izan. Erabaki hau Udal Gobernuarentzat loteslea izango da.
- 3.- Jende gutxi edo informazio falta dagoela uste bada, bitartekoak jarriko dira eta beste bilera baterako atzeratuko da erabakia. Deialdian bigarren saioa dela eta bozketa egingo dela espreski azalduko da eta bilera horretara azaldutakoekin hartuko da azken erabakia.



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

4.- Gairen batean blokeoa badago bigarren bileran, eta interes bereziko gaia bada herri galdeketa bidez egoera desblokeatzeko aukera aztertuko da Osoko Bilkuran.

### **12.- artikulua. Biltzeko eskubidea**

Pertsona, elkarte edo talde orok izango du udal lokalen batean biltzeko eskubidea. Udalak ostatuaren ondoan dagoen gela jarriko du horretarako. Tokia hartu duen bezala uzteko konpromisoa dute talde denek eta garbiketa eta materialez hornitzea beraien ardura izango da.

Egonkorrak diren taldeek beraien giltza propioa izango dute eta norbanakoen kasuan Ostatuan eskatu beharko dute giltza.

---

### **Herritarren elkarten eta taldeen parte hartzea**

---

### **13.- artikulua. Herritarren Elkarte eta Taldeen udal Erregistroa**

1.- Erregistro horretan inskribatzen dira jarduera eremua Orexan edo horren lurraldean duten elkarte edo talde egonkor eta iraunkorrak. Elkarte edo talde egonkortzat hartzen da hiru pertsona edo gehiagoko taldea, bitarteko ekonomiko edo pertsonalak komunean jartzeko konpromisoa hartzen duena, irabazi asmorik gabe, interes orokorreko helburu jakin bat lortzeko asmoz.

2.- Udalak ebatziko ditu inskripzio eskaerak, aurkeztu direnetik 30 eguneko epean. Ebazpenak eskaera ezesten badu, arrazoitu egin beharko da, bai zuzenean interesdunari eta baita Osoko Bilkuran ere.



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

3.- Udalak ofizioz baja emango die jarduerarik ez duten elkarte edo taldeei, egoera hori interesdunari jakinaraziz; horrek alegazioak egiteko aukera izango du 15 eguneko epean eta alegaziorik aurkezten ez badu, berehala baja emango zaio.

4.- Udal erregistroan inskribatutako elkarte eta taldeek funtzionamendu demokratiko eta gardena dutela, eta beraien kudeaketan eta erabakiak hartzeko jardunbideetan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu beharko dute.

**14- artikulua. Elkarte eta taldeek informazioa jasotzeko duten eskubidea**

Araudi honen 3. artikuluan aitortzen den udalaren informazioa jasotzeko eskubide orokorraren kalterik gabe, Elkarte eta Taldeen udal Erregistroan inskribatutako elkarte edo taldeek honako eskubide hau ere izango dituzte:

- a) Udalari emandako posta elektronikoko helbidean Orexako Udalaren Osoko Bilkuren deialdiak jasotzea.
- b) Bere jarduera esparruko udal proiektu eta ekimenen informazioa jasotzea.

**15.- artikulua. Udalaren euskarrietan tarte bat izateko eskubidea**

1.- Udalak bere webgune eta aldizkarian, tarte bat gordeko die Elkarte eta taldeen Udal Erregistroan izena emanda dauden erakundeei.

2.- Tarte horretan eskaintzen diren edukiak elkarteak erabakiko ditu; betiere, bere ardurapean, baina giza eskubideen urraketari bide eman gabe eta Orexako pertsonen eta ideien aniztasunari eta genero berdintasuneko politikari kalterik egin gabe, eta Orexako hizkuntza irizpideak beteta.

**Herritarren parte hartzerako prozesuak, organoak eta bitartekoak**



## **16.artikulua. Parte hartzeko prozesuaren definizioa**

1.- Araudi honen ondorioetarako, parte hartzeko prozesua izango da honako aldi hauek guztiak biltzen dituen:

- a) Informazio aldia: horren bitartez, eragindako herritar orori helarazten zaio parte hartzea izatea nahi den gai edo proiektuari buruzko informazioa, egoki diren teknika metodologikoak erabilita.
- b) Eztabaida aldia: horren bitartez, egoki diren metodologiak erabilita, herritarren diagnostikoa, eztabaida eta proposamenak sustatzen dira.
- c) Erabakitze aldia: horren bitartez, parte hartzen dutenekin erabakia hartuko da, ahal den adostasun maila handienarekin.
- d) Burutzeko aldia: horrez bitartez hartzen dira herritarrek erabakitakoa burutzeko beharrezko erabakiak.
- e) Prozesua berrikusteko aldia: prozesuan zehar egingo den etengabeko berrikuspenak balio ahal izango du prozesuaren beraren diseinuan egokitzapenak egiteko.
- f) Ebaluazio aldia: horren bitartez, herritarrek erabakitakoa eta benetan burututakoa zenbateraino bat datozen ebaluatzen da.

## **17.artikulua. Herri galdeketa**

### **17.1. Oinarriak**

1.- 16 urtetik gorako herritarrek eta Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dagoen herritar orok du eskubidea bere interesekoak diren gaien inguruko kontsulta jasotzeko eta herri galdeketa sustatzeko. Herritar bakoitzak boto bakar bat eman ahal izango du herri galdeketa eta ez da onartuko inork beste inoren ordezkartzan botoa ematerik.



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

2.- Herri galdeketa udal eskumeneko eta tokiko izaerako esparruei buruzkoa izango da eta ez toki ogasunaren inguruko gaiari buruzkoa. Galdeketa galdegaiekin ezingo zaio bide eman oinarritzko giza-eskubideen urraketa eta zalantzazko kasuetan Orexako Udalak iritzia eskatuko die giza eskubideen inguruko Euskal Herri mailako behatoki eta adituei.

3.- Galdeketa egitea erabakitzeko, Osoko Bilkuraren gehiengo osoa beharko da eta galdeketa horrek erreferendum izaera baldin badu Estatuko organo eskudunari eskatu beharko zaio baimena.

4.- Herri galdeketa Osoko Bilkurak baimendu beharko ditu, gehiengo osoz. Galdeketa proposamenaren ekimena honako hauei dagokie:

- a) Biztanleen Udal Erroldan inskribatuta dauden bizilagunen %20ek sinatutako eskaera.
- b) Eskatzaile interesdunak herri galdeketa eskatzeko sinadura bilketa egin nahi badu, horretarako Udalak propio prestatuta duen eskaera agiria bete eta sarrera eman beharko dio. Behin sarrera emanda, 15 eguneko epean, bilera deituko du alkateak, sinadura bilketari noiz eta nola ekin adosteko. Sinadurak Udalak horretarako propio prestatutako orrietan bilduko dira. Orri horiek eskatzailearen esku jarriko dira; bere ardura izango da sinadurak biltzea eta Udaletxean ere sinatzeko aukera emango da ohiko harrera ordutegian. Bilketa hasi eta hilabeteko epean goian aipatutako sinadura kopurua lortu eta udaletxean sarrera ematen bazaie, eta zerrendak egiaztatu ondoren, Udalak herri galdeketa egingo du sei hilabeteko epean. Udalaren ardura izango da galdeketa antolatzea. Alkateak Osoko Bilkurara eraman beharko du ekimena, organo horrek izapidetu dezan herri galdeketa. Galdeketa egiteko erabakiak berak zehaztuko du galdeketa bera zein baldintzatan egingo den.
- c) Alkateak herri galdeketa mende jarri ahal izango ditu udal eskumenekoak diren eta garrantzi bereziko zat jotzen dituen gaiak, aurrez Osoko Bilkuraren gehiengo osoz hartuta erabakia.



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

5.- Osoko bilkurak galdeketa egiteko herritarren eskaera ezesten badu, ebazpenaren arrazoiak adierazi beharko ditu.

6.- Udalari dagokio galdeketa egiteko izapide guztiak egitea.

7.- Gai bakoitzari buruz galdeketa bakarra egin ahal izango da legealdi bakoitzean. Tartean urgentziazko kasurik ez badago, urtean galdeketa bakar bat egin ahal izango da baina galdeketa bakoitzean galdera bat baino gehiago egin ahal izango dira (gehienez 4 galdera).

8.- Galdeketaren emaitza Udalarentzako loteslea izango da, betiere galdeketarako onartutako hautesle eroldaren %50 baino gehiagok hartzen badu parte eta erantzun garaileak boto guztien %50 baino gehiago jaso badu. Baldintza horiek betetzen ez badira, galdegaiari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku geratuko da.

9.- Herri galdeketaren deialdiak eragiten du Udalak egindako galderaren inguruko informazio kanpaina eta herritar orori aukera guztiak ezagutzea bermatzea.

### **17.2. Galdeketak burutzeko prozedura eta baldintzak**

1.- Herri galdeketa burutzeko prozedurak honako izapide eta baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Herri galdeketarako deialdia etxe guztietara buzoneatu eta Ostatuan ikusgai jarriko da.
- b) Hautesle errola jendaurrean jartzea, gutxienez astebetetz.
- c) Hautesleen eroldaren inguruan egindako erreklamazioak ebaztea.
- d) Bozkatzeko lekuen onartzea.
- e) Hauteskunde mahaietako kideak hautatzeko zozketa egitea.
- f) Bozketa
- g) Hautesleek bozketaren egunean egindako erreklamazioak.
- h) Behin behineko zenbaketa. Zenbaketaren aurkako erreklamazioak.



**OREXAKO**  
**UDALA**

---

i) Behin betiko zenbaketa eta kontsultaren emaitzak argitaratzea.

2.- Kontsulta Osoko Bilkurak onartu ondorengo 3-6 hilabete artean egin beharko da.

### **18.artikulua. Herri kontsultak argitaratzea**

Herri kontsulta bat egiten denean, Udalak atera diren emaitzak argitaratu egin beharko ditu, hura identifikatuko duen datu tekniko guztiak zehaztuaz. Emaitzak, etxe guztietara buzoneatuko dira, herriko ostatuan ikusgai jarriko da eta web orrian ere zintzilikatuko da gutxienez.

### **19.artikulua. Bestelako parte hartze bideak**

Arau honek aipatutakoez gain, Orexako Udalak erabaki dezake parte hartzeko beste mekanismo batzuk martxan jartzea, betiere araudi honekin bat badatoz edo erreformarik eginarazten ez badute. Horien adibide izan daitezke hauek: inkestak edo herri galdeketa partzialak, Kontseiluak, bestelako parte hartze kanal fisiko edo digitalak...

---

### **Aurrekontu parte-hartzaileak**

### **20. artikulua. Prozedura.**



## **OREXAKO** **UDALA**

---

Aurrekontuak Osoko Bilkuran onartu beharko dira. Egoera ekonomikoak asko baldintzatzen ditu herri txikiak eta normalean inbertsoetarako aukera gutxi izaten da. Horregatik, berebiziko garrantzia du atal hau herritarrekin batera erabaki eta garatzeak.

Inbertsioetarako geratzen den diru kopurua zehaztuko du Udal Gobernuak. Kopuru hau Osoko Bilkuran edo beste bilera mota batean herritarrei helarazi eta azalduko zaie. Dagokion teknikak erabiliz herriak dituen gabeziak detektatu eta denon artean lehentasunen arabera aukeraketa bat egingo da. Eztabaida eta aukeraketa hau Osoko Bilkuran egingo da.

Prozesu honetarako baliagarriak izan daitezkeen parte-hartze prozesuak, inkestak, galdeketa eta beste hainbat tresna erabiltzea ere ahalbidetuko da.

### **Auzolana**

---

#### **21.artikulua. Konpromisoa.**

Luzea da Orexan auzolanak duen bidea. Orexako Udalak auzolanaren balioak zabalduko ditu eta herriko ondarea eta bizi kalitatea mantentzeko ahalegin guztiak egingo ditu auzolanaren bidez. Urtean gutxienez auzolan bat antolatu beharko du Udalak. Etxe edo familia bakoitzetik gutxienez kide bat joatea eskatuko da. Osoko Bilkurak, auzolanaren parte hartutako herritarrak saritu ahal izango ditu eta sekulan ezingo ditu zigortu parte hartu ez dutenak.

#### **22.artikulua. Prozedura.**

Auzolanean zer eta noiz egin Osoko Bilkuran erabakiko da. Herritarrekin batera, eta ahal bada aho batez, lehentasun handiena zerrek duen erabakiko da.

#### **23.artikulua. Udalaren zereginak.**





Udal taldeko kideak auzolanean parte hartzaile aktibo izango dira. Udalak egingo du deialdi zabala eta berak lortuko du data horretarako behar den material guztia. Herritarrek ere eskura duten materiala Udalari jakinarazi eta eraman ahalko dute. Udalak bere Erresponsabilitate Zibilaren barnean parte hartzen duten herritar guztiak aseguratuko ditu istripuren bat gertatuko balitz ere. Honetaz gain, eta aurrekontuak ahalbidetzen duen kasuetan Udalak parte hartzen duten herritarrei esker modura mokadu bat ordainduko die herriko ostatuan.

#### **24.artikulua. Bestelako auzolanak**

Udalak zuzenean herritarrekin, auzolana zabaltzeko konpromisoa du. Herritar ororentzat auzolanean antolaturiko ekintzek lehentasuna izango dute udal baliabideak esleitzerako garaian. Udalak diruz edo/eta eskuragarri duen materiala utziaz sustatuko ditu herritarrek antolaturiko ekintzak. Horretarako, herritarrek zein ekintza eta zer laguntza mota behar duten eskaera egin beharko dute.